

IKASLEEN ARAUTEGIA

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK





1. ALDEZ AURREKO AZALPENA

2. IKASLEAREN ESKUBIDEAK

3. IKASLEAREN BETEBEHARRAK

4. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

- 4.1. Printzipio nagusiak.
- 4.2. Jokabide mota desberdinak.
- 4.3. Neurri zuzentzaileak eta beste ondorio batzuk.
- 4.4. Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak.

5. JARRAIBIDEAK ETA PROZEDURAK

- 5.1. Ikasleari integritatea errespetatu eta arreta berehala jasotzeko jarraibideak.
- 5.2. Azterketen berrikusketa egiteko prozedura.
- 5.3. Ebaluazioa ren inguruko erreklamazioak egiteko prozedura.
- 5.4. Elkartzeko eskubidea baliatzeko prozedura.
- 5.5. Kartelak eta iragarkiak. Idatzizko adierazpen askatasuna baliatzeko prozedura.
- 5.6. Eskolara ez etortzeko eskubidea baliatzeko prozedura. Grebak.
- 5.7. Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea baliatzeko prozedura.
- 5.8. Puntualtasun eza eta bertaratze hutsegiteak justifikatzeko prozedura.
- 5.9. Jokabideak zuzentzeko prozedurak.
 - 5.9.1. Jokabide desegokiak zuzentzeko prozedurak.
 - 5.9.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko prozedurak.
 - 5.9.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko prozedurak.

6. ERANSKINAK

- 6.1. Eguneroko arauak.
- 6.2. Txantiloiak.



1. ALDEZ AURREKO AZALPENA

Zurriola ikastolan gizarte-elkarrekintzarako prestatu nahi ditugu ikasleak eta, aldi berean, giro baikor batean bizi nahi dugu komunitatea osatzen dugun orok, elkarrekiko konfiantzan.

Horretarako:

- Giza harremanetarako balio, jarrera eta jokabide baikorrak sustatu eta giza eskubideen printzipioen onarpena eta indarkeriazko eta diskriminaziozko jarrerren bazterketa landu nahi ditugu.
- Kultura parte-hartzailea eraiki nahi dugu, tolerantzia eta diferentziak errespetatuko dituen.
- Halaber, ikasleen arrakasta nahi dugu efikaziaz eta argitasunez sar daitezkeen haiei dagokien garapen-bideetan, eta, gerora, helduen bizitzan eta lan-bizitza aktiboan, eta, hortaz, esfortzua eta jarrera proaktiboa garrantzizkotzat jotzen ditugu.

Funtsezko zeregina dute ikastolako kideen arteko harremanak gidatuko dituzten baloreek: elkarrenganako errespetua, elkartasuna, berdintasuna, aniztasuna, bakea, askatasuna, partaidetza, lana eta esfortzua.

Zurriola ikastola osatzen dugun guztiok etengabe jardun behar dugu lanean ikastetxeko giroa eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko, baita arazoei aurre egiteko ere. Garrantzitsua da eskolako harremanetan sortu daitezkeen gatazken prebentzio-arloa indartzea, elkar ezagutzea, norbera eta kidea estimatzea, komunikazioa, lankidetzeta.... Horiek landuz, eremu eta giro egokiak sortzen ahalegindu behar dugu gatazkek, auziak eta indarkeriazko jokabideak prebenitzeko. Baina garrantzitsua da ere, gatazkek sortzen direnean, egoera lasaitasunez aztertu eta konponbideak bilatzen ikastea, ahal dela, adostasunez edota adiskidetzeta bilatuz. Horiek lantze aldera egingo dugu eguneroko jardunbidean, gure ikasleak elkarbizitzarako konpetentzia modu egokiz gara dezaten.

Elkarbizitza-esparrua arautzen du "Ikasleen eskubide eta betebeharren araudi" honek eta helburu hauek ditu:

- ikasleek beraien eskubideak argi ezagutzea, eskubide horiek baliatu eta ongi erabil ditzaten, besteengan kalterik eragin gabe eta beharrezkoa dutenean babesa eska eta jaso dezaten.
- ikasleek egunerokoan nola jardun behar duten ezagutzea, beraiengandik ikastolako gainerako kideek zer espero duten argi jakitea.



- bizikidetza arauekin bat ez datozen jokabideei zein modutan emango zaien erantzuna ezagutzea eta erantzun hori berme guztiekin emango dela ziurtatzea.

Ezinbestekotzat jotzen dugu ikasleek bere egin dezaten araudi hau, berebiziko garrantzia emanaz. Ezinbestekoa da, beraz, sorreran eta gerora egingo diren zuzenketa edo egokitzeetan parte hartzea, horretarako dituzten partaidetza bideak baliatuz.

Araudi honetan ondokoak jasotzen dira:

- zaindu beharreko eskubideak
- zaindu beharreko betebeharrak
- eskubideak urra ditzaketen balizko jarrerak eta horien sailkapena
- neurri zuzentzaileak (eta horiek erabaki eta betearazteko bermezko prozedurak)
- jarraibideak eta prozedurak
- eguneroko arauak (zehatzak)

Ez gara hutsetik hasi, kontuan hartu ditugu Zurriola Ikastola eta Barandiaran Lizeoko jatorrizko araudiak eta baita **Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretua (abenduaren 2koa)**. Azken hau oinarritzkoa eta derrigorrezkoa da.



2. IKASLEAREN ESKUBIDEAK

Ikaslearen eskubideak honako hauek dira:

2.1. Kalitatezko hezkuntza integrala jasotzea.

Ikaslearen eskubidea da bere nortasuna erabat garatzea ziurtatuko duen hezkuntza jasotzea. Honek zera esan nahi du:

- a) Oinarrizko giza eskubideak eta askatasuna errespetatzen ikastea eta tolerantzia, justizia eta askatasuna erabiltzen ikastea, elkarbizitzako printzipio demokratikoak jarraituz.
- b) Lanerako ohitura intelektualak eta teknikoak eskuratzea eta gaitasun afektiboak, motoreak, pertsonen arteko harremanetarakoak eta gizarteratzekoak garatzea, ezagutza zientifiko, tekniko, humanistiko, historiko eta estetikoekin batera.
- c) Irakaskuntza euskaraz jasotzea, Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza praktikoa eta zuzena izatea, euskararen erabilpena indartuz eta normalkuntzari laguntza emanez. Halaber, Euskal Herriaren ingurune geografiko eta kulturean nagusi diren nazioarteko hizkuntzak ezagutzea.
- d) Ikaslea, Euskal Herriaren historia eta kultura ezagutzuz, bertako tradizioak, geografia, gizarteak, ekonomia eta kultura eremuetan sustraitzea.
- e) Elkarbizitzarako baloreak, ohiturak eta jarrerak bereganatzea eta garatzea, gure gizartean parte izateko.
- f) Bakerako, askatasunerako, justiziarako eta herrien arteko elkarlan eta solidaritaterako hezteak.
- g) Afektibitatea, auto-estimua, autonomia eta harremanetarako gaitasunagaratzea.
- h) Osasuna zaindu eta gaitasun fisikoak garatzea ziurtatuko duen heziketa jasotzea.
- i) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzen parte hartzea.
- j) Lanbide jardueretan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaitzea.



2.2. Ikasleari integritatea eta duintasun pertsonala errespetatu behar zaizkio.

- a) Ikasleari segurtasun fisikoa, psikikoa eta morala eta duintasun pertsonala errespetatuko zaizkio, eta, inola ere, ezingo zaio tratu laidogarri edo umiliagarri eman, ezta ere tratu txar fisiko edo morala duten zigorrik ezarri.
- b) Ikaslearen eskubidea da jardun akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan garatzea.
- c) Ikasleek eraso fisiko edo moralen aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute. Ikastolako gobernu-organoek, irakasleek eta gainerako langileek berdinen arteko tratu txarrak ezabatzen lagunduko dute.
- d) Ikastolak neurriak hartuko ditu ikasleen ohorerako, intimitaterako eta irudi propioarako eskubideei inork eraso edo kalte egin ezdiezaien teknologia berrien bitartez.
- e) Ikastolak ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituen datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko ditu. Era berean, eragotziko du ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, horretarako baimenik ez dagoenean.

Halere, eta legediaren arabera, informazio hori eman egin beharko die, batetik, hezkuntza administrazioari eta bere zerbitzuei, dituzten informazio beharrei erantzuteko, eta, bestetik, eskumena duen agintaritzari ikasleak tratu txarrak jasotzen dituela sumatzean edo adin txikikoen babeserako legeek ezartzen dituzten beste edozein betebeharrak ez dela betetzen antzematean.

- f) Eskola jardunean, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan ez da inola ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen eta kontsumitzen utziko.

2.3. Arreta berehala jasotzeko eskubidea.

- a) Ikasleek arreta berehala jasotzeko eskubidea dute. Jakingo dute, unean-unean, zein irakaslearengana edo arduradunarengana jo dezaketen edozein eraso fisiko edo moralen aurkako babesa berma diezaien.
- b) Tratutxarrak, babesik gabeko edo arrisku egoerak, indarkeria zantzuak zein absentismo-maila handia atzematen badira, ikastolak berri emango die eskumena duten erakundeei. Nolanahi ere, behar den diskrezioz jardungo da ikasleen bizitza pribatuan sartzea saihestuz.



2.4. Eskola-errendimenduaren ebaluazioa.

Ikaslearen eskubidea da bere eskola-errendimendua erabateko objektibitate irizpidez baloratua izatea.

a) Ikasleak eskubidea du ebaluazio irizpideak, kalifikazio irizpideak, helburuak eta edukiak ezagutzeko. *Horren berri jasoko du* hiruhilabetekoaren hasieran edota unitate didaktiko bakoitzaren hasieran, etapa edo ikasmilaren arabera.

b) Ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak hala eskatuz gero, azken kalifikazioaren gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik ikusteko aukera bermatuko zaie.

c) Ikasleek edo beren legezko ordezkariak erreklamazioak egiteko eskubidea dute aipatutako ebaluazio horietako kalifikazioen aurka, ebaluazio irizpideak kontutan izanik.

2.5. Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.

Ikasleek hezkuntza- eta lanbide- orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da.

2.6. Norberaren sinesmen erlijioso, moral, etiko eta ideologikoekin batera, kontzientzia-askatasuna errespetatua izateko eskubidea.

Eskubide hori ondorengo hauek bermatuko dute:

a) Irizpide objektiboetan oinarritutako irakaskuntza eskainiko da, ikaslearen erabilera ideologikoa edo propagandistikoa saihestuko duena, beti ere, lege-ordenamenduan agindutako mugen barruan erabiliko den adierazpen-askatasuna kaltetu gabe.

b) Ikaslearen gaitasun eta jarrera kritikoak sustatuko dira.

c) Matrikula egin aurretik, ikasleari edo bere guraso/tutoreei ikastolaren hezkuntza proiektuaren berri emango zaie.



2.7. Adierazpen-askatasunerako eskubidea.

Elkarbizitzarako printzipio demokratikoen haritik, ikasleak adierazpen-askatasunerako eskubidea du, bakarka eta taldean, baldin eta, gertakizun akademiko, kultural, sozial eta politikoen aurrean, aniztasunaren adierazpena onartzen badu, eta, eskola jarduna eragozten ez baldin badu. Edonola ere, pertsonai, erakundeei eta hezkuntza erkidegoko kide guztiei zor zaien errespetua zaindu beharko du.

2.7.1. Elkartzeko eskubidea.

Bigarren hezkuntzako ikasleek eskola orduetan elkartzeko eskubidea dute, ondorengo helburuetarako:

- a) Eskola jardunarekin zerikusia duen edozer gai aztertu, komentatu, baloratu eta horren gainean iritziak eman eta bateratzeko.
- b) Ikastolaren kide anitzeko organoetara beraien iritziak eta proposamenak eramateko eta horietan aztertutakoaren eta erabakitakoaren berri izateko.

DBH 3. eta 4. mailetakoko zein Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek eskola-orduetatik kanpo elkartzeko eskubidea dute, ondorengo helburuetarako:

- a) Heziketa helburu bat eman dakiekeen eskolako edo eskolaz kanpoko edozein gai aztertu, eztabaidatu, baloratu eta horren gainean iritziak eman eta bateratzeko.

Biltzeko eskubidea baliatzeko prozedura erabiliko da.

2.7.2. Idatzizko adierazpen askatasuna.

Idatzizko adierazpen askatasuna bermatuko du ikastolak. Horretarako zehaztutako prozedura jarraitu beharko da.

2.8. Eskoletara ez bertaratzeari buruzko erabakia hartzeko eskubidea.

DBH 3. mailatik gorako ikasleek eskoletara ez bertaratzeari buruzko erabakia hartzeko eskubidea dute, beti ere, gizarte eragileren batek deialdia egin duenean eta horretarako ikastolan zehaztutako prozedurari jarraiki.



2.9. Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea.

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzatik aurrera ikastolako jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute.

a) DBHtik aurrera ikasturte eta talde bakoitzeko ordezkariak egongo dira, baita ordezkari horiek kide izango diren organoak ere. Ordezkarien bidez parte hartu ahal izango duten ikastolako organoak hauek dira:

- Euskara Batzordea
- DBHko Batzordea
- Batxilergoko Batzordea
- Ordezkaritza Organo Gorena (Eskola Kontseilua)

b) Ikastolak ikasleei beharrezkoa duten informazio guztia emango die, haien eskubideak bermatze aldera.

c) Ikasleek eskubidea dute informazioa jasotzeko beren partaidetzarako ordezkarien eskutik, bai ikastolako gaien inguruan, bai Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien inguruan.

2.10. Aukera berdintasunerako eskubidea.

Ikaslearen eskubidea da hezkuntza-maila guztietara heltzeko aukera berdina izatea. Aukera berdintasuna honela sustatuko da:

a) Bereizkeriarik ez eginez jaiotza, arraza, sexu, ahalmen ekonomiko, gizarte-maila, uste politiko, moral edo erlijioso sendoengatik, ezta urritasun fisiko edo psikikoengatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialengatik ere.

b) Ikastolak eginahalak eginez hezkuntza behar bereziak dituenari erantzun egokiak bilatzeko eta integraziorako hezkuntza sustatzeko.



c) Beka sistema baten bitartez baliabide ekonomikoak ahalbidetuz, ikasleak hezkuntza-maila guztietara heltzeko aukera izan dezan.

d) Istripu edo gaixotasun luze bat gertatuz gero, ikasleari bere eskola-errendimenduan oztoporik gerta ez dakion, ikastolak beharrezko laguntza emango dio, bere egoerari egokitutako plangintza eskainiz.

e) Elbarri edo antzeko egoeran dauden ikasleei ikastolak beharrezko baliabide guztiak eskainiz.



3. IKASLEAREN BETEBEHARRAK

3.1. Ikastolaren HPa errespetatzeko eta euskaraz hitz egiteko betebeharra.

Ikasleak ikastolaren hezkuntza proiektua errespetatzeko betebeharra du, hezkuntza proiektu horren arabera hezteko eskubidea duen neurri berean. Zurriola ikastolaren hezkuntza proiektuari jarraiki (*euskal nortasuna eta euskalduntasuna garatuko dituen hezkuntza*), ikastolak antolatzen dituen ekintza guztietan komunikazio-hizkuntza euskara izango da.

3.2. Ikasteko betebeharra.

Ikasteak esan nahi du norberaren gaitasunak eta eskaintzen diren ezagutzak aprobetxatzea prestaketa egokia eta norberaren garapen ezin hobea erdiesteko.

Betebehar hori ondorengoetan zehazten da:

- a) Ikasleak behar adina lana egingo du, eta interesez.
- b) Lan intelektualerako giro egokia sortzen lagundu behar du.
- c) Ez du bere portaerarekin eragozpenik sortuko gelan.

3.3. Prestakuntza jardueretan parte hartzeko betebeharra.

Ikasleak irakasleek erabakitako ikasketa planak beteko ditu, lan pertsonalak eginez nahiz lan-taldeetan lagunduz.

3.4. Bertaratzeko betebeharra.

- a) Ikaslea derrigorrez etorriko da ikastolara, puntualtasunez eta ordutegiak errespetatuz.
- b) Bertaratze- eta puntualtasun- hutsegiteak ikasleek edo, ikaslea adin gabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idatziz justifikatu behar dituzte, onargarria den egiztagarriaren bitartez (justifikantea).



3.5. Bizikidetzaren errazteko betebeharra.

- a) Ikasleak ikastolako elkarbizitza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko parte hartu behar du.
- b) Kide guztien eskubideak errespetatu behar ditu, sortzen diren gatazkak konpontzeko modu baketsuak erabiliz.
- c) Bizikidetzaren aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar du.

3.6. Kide guztien kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

- a) Eskola komunitatea osatzen duten kide guztien kontzientzia-askatasuna eta uste ideologiko, erlijioso, moral eta etiko sendoak errespetatuko ditu, beraien duintasuna, segurtasuna eta intimitatea bezalaxe.
- b) Eskola komunitateko inor ez du diskriminatuko jaioterria, adina, etnia, ideologia, kultura, erlijioa, iritzia, arraza, orientazio sexuala, sexua, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera edo bestelako arrazoi pertsonal edo sozialengatik.
- c) Ikaskideen erabakiak errespetatuko ditu, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.
- d) Ez du kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko inolako adierazpenik egingo.
- e) Ezin izango du ikastola eremuan zein jardueretan grabazio baliabiderik erabili, salbu eta ikastolak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango du hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu, eta hartarako baimena ematen ez badu.



3.7. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

- a) Ikastetxeko antolamenduko, bizikidetzako eta diziplinako barne arautegi hau eta gainontzeko funtzionamendu arauak (gelako arautegia, jangelakoa, patiokoa...) bete behar ditu, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ezdagoenean ere.
- b) Arduradunen jarraibideak errespetatuko ditu (irakasleak, laguntzaileak zein bestelako arduradunak).

3.8. Instalazioak eta ondasunak errespetatzeko betebeharra.

- a) Komunitateko ondasunak diren heinean, ikastolaren instalazioak, altzariak, material didaktikoa eta gainontzeko tresneria errespetatu eta zuzen erabiliko ditu.
- b) Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan.
- c) Ikasleak ikastolako gainerako kideen gauzak errespetatu behar ditu.

3.9. Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzeko betebeharra

Ikaslearen betebeharra da hezkuntza sistema hobetzeko helburuz sortutako ikastolaren organo guztietan parte hartzea, kide bakarrekoak edo kide anitzekoak izan.

3.10. Osasuna zaintzeko betebeharra.

- a) Ikastolan eta honek antolatzen dituen jardueretan, ikasleek debekatua dute erretzea, alkohola saltzea eta edatea, eta beste edozein droga saldu zeinkontsumitzea.
- b) Ikasleak bere garbitasuna eta higiena zein higiene arau orokorrak zainduko ditu, ikaskideekiko errespetuagatik.



4. BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

4.1. Printzipio nagusiak.

- a) Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.
- b) Ikaslearen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, gutxienez, jokabide desegokitzat. Ez betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzat horri kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da.
- c) Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabideekin lotutako neurrien bitartez.
- d) Neurria jartzerakoan, kontuan hartuko dira ikaslearen adina, eskola-maila eta bere egoera partikularra, familiakoa eta soziala. Neurri zuzentzailea erabaki behar duen organoak prozedura diskrezioz eramatea ziurtatuko du.
- e) Ikasleari ezingo zaizkio galarazi bere hezkuntza eskubidea eta bere eskolatzeko eskubidea.
- f) Ezingo da ezarri ikaslearen duintasunaren eta integritatearen aurkako neurri zuzentzailerik, ezta ikaslearen beste eskubideak kaltetu ditzakeenik ere.
- g) Neurriak egindako hutsegitearen neurrikoa izan behar du eta ikaslearen hezkuntza jarduna hobetzea izango du helburu.
- h) Zuzendaritzaren ardura da neurri zuzentzaileak betetzen direla zaintzea.
- i) Hemen begiztatzen diren jokabideak eta hutsegiteak, ikastolan eta ikastolak antolatzen dituen kanpo jardueretan, jarduera osagarrietan zein garraio- eta jangela-zerbitzuetan aplikatuko dira.



4.2. Jokabide mota desberdinak.

Bizikidetza nahasten dituzten jokabideak hiru taldetan sailkatzen dira:

- Jokabide desegokiak.
- Elkarbizitzaren aurkako jokabideak.
- Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

4.2.1. Jokabide desegokiak:

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.
- c) Ikastolako eremutik irtetea horretarako baimenik ez dagoenean.
- d) Ikastolaren instalazioei, materialari edo ikastolako gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik edo utzikeriagatik gertatzen denean.
- e) Eguneroko funtzionamendu arautegiak ez betetzea (gelakoa, jangelako, patiokoa...).
- f) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien baimenik gabe edo haien borondatearen aurka.
- g) Irakasleek, agintari akademikoek edo bestelako langileek agindutakoa ez betetzea, betiere, ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu.
- h) Ikastolako kideen aurkako adeitasunik ezako jarrerak, keinuak edo hitzak.
- i) Besteen jarduna oztopatzea edota molestatzea.
- j) Ikastolara debekatutako materiala, jantziak edo gailuak ekartzea edota erabiltzea.
 - Arriskua edo bestelako kalteak sor ditzaketenak.
 - Mezu mingarriak daramatzatenak.
 - LHn gailu elektronikoak.
 - Etapa guztietan sakelekoa erabiltzea. Ikastolako eremuetan ezin da mugikorrik erabili, irakasleek bideratutako erabilera pedagogikorako ez bada.



- k) Ikastolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- l) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- m) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- n) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- o) Gelan edo pasilloetan egotea horretarako baimenik ez dagoenean.
- p) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere ikastolako gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

4.2.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideak.

- a) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- b) Ikaskideen gauzak erabiltzea, haien borondatearen aurka, esplizituki hala adierazi denean.
- c) Irakasleek, agintari akademikoek edo bestelako langileek agindutakoa ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.
- d) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.
- e) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.



- f) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.
- g) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.
- h) Azterketa-ereduak lapurtzea, haiei argazkia ateratzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- i) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeen kasuan, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.
- j) Ikastolako eremuan sartzea eskola orduetatik kanpo, ikastola itxita dagoela, eta horretarako baimenik gabe.
- k) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- l) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.
- m) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.
- n) Ordena nahasten duten portaerak ikastolako instalazioetan, autobusean edo eskolaz kanpoko jardueretan bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.
- o) Ikastolako , jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan tabakoa, alkohola edo bestelako drogak edukitzea edo kontsumitzea.
- p) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza- komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.



a) 4.2.1. artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

4.2.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

a) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka, baitaldean.

b) Hezkuntza komunitateko beste kideen gauzak lapurtzea.

c) Irakasleek, agintari akademikoek edo bestelako langileekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne.

d) Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laidogarri edo iraingarriak, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

e) Ikastolako edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

f) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

g) Berdinen arteko tratu txarretan parte hartzea.

h) Ikastolako jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilita aritzea.

i) Irakasle eta arduradunei gezurra esatea, beste kide batzuei kalte larria eragiten bazaie.

j) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen ikastolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutetzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

k) Ikastolako eremuan indarrez edo kalteak sortuz sartzea edota egoitza barruan ikastola itxita dagoenean sartzea.

l) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteen irudiak erabiltzea (konpartitzea edota publiko egitea) haren edota haien gurasoek edo legezko ordezkarien baimenik gabe eta helburuz edo ondorioz pertsona horren duintasuna erasotzen bada.



- m) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- n) Jazarpen sexista, honako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- o) Ordena nahasten duten portaerak ikastolako instalazioetan, autobusean edo eskolaz kanpoko jardueretan; befier, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.
- p) Ikastolako kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- q) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak (4.2.2. atala), taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- r) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori ikastolako gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.
- s) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.
- t) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan (4.2.2.) adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluan horren m) atalean bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.



4.2.4. Ikastetxetik kanpo egindako jokabideengatik erantzukizuna.

Aurrekoetan bildutako jokabideak ikastola eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpoko jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

4.3 Neurri zuzentzaileak eta beste ondorio batzuk.

4.3.1. Jokabide desegokien zuzenketa.

Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko ditugu jokabide desegokiak:

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa idatzia.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea. Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea, eskola orduz barne zein kanpoan.
- c) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea, eskola orduz barne zein kanpoan.
- d) Zuzendariaren, ikasketa buruaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

4.3.2. Ikastolako bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
- b) Ohartarazpen idatzia.
- c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.



d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez, eskola lan orduz barne edo kanpo.

f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastolan.

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

*g), h) eta i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izango dira, soilik a) eta f) arteko ataletan adierazitako neurriak bitan gutxienez aplikatu ondoren, jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

4.3.3. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauek edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastolako jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.



b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

Artikulu honetako b), c) eta d) idatz zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta a) idatz zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada. Ikastetxez aldatzeko proposamena.

1. Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:

- a. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 4.2.3.t) idatz zatian (*Dekretuan 32. Artikuluko 1.n.*) zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeit hamar eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.
- b. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
- c. Ikastetxeko langile bati eraso egitea.
- d. Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.

2. Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzen ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.



3. Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

4.3.4. Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

1. Ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko beharrezkoa da ikasleak erregulararki eskoletara joatea eta ikasgai guzietarako programatutako jardueretara joatea.

Batxilergoan ikasgai batean eta ebaluazio batean justifikatu gabeko %15 eta Lanbide Heziketan

%20 hutsegite baino gehiago duten ikasleek ebaluazio jarraiturako eskubidea (ebaluazio-azterketa eta berreskurapena) galduko dute. Horren ondorioz ikasturte bukaerako azterketara (ohikora eta apartekora) aurkeztu beharko dira.

2. Irakasleek erabakiko dute egin beharreko lan eta proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatu- takoari jarraiki.

4.3.5. Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

4.3.6. Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larri edo ikastetxeak onartutako bizikidetzara-arauden aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren ordez, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkarriak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.



4.3.7. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

1. Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a. Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
- b. Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.
- c. Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta Dekretuko 3.3 artikuluan zehazturiko oinarritzko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
- d. Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

2. Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

- a. Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
- b. Aurretiaz neurri zuzentzailearik jaso ez izana.
- c. Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezineari kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
- d. Jendaurrean barkamena eskatzea.
- e. Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
- f. Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3. Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira.

- a. Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.



- b. Kaltea nahita egina izatea.
- c. Kaltea apropos egitea edo aldez aurretik prestatu ondoren egitea.
- d. Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
- e. Eskola-arloko ordezkari-targua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

4.4. JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

1. Ikastolako zuzendariak ahalegina egingo du bizikidetzaren arazoak konpontzeko, Dekretuko IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, III. kapituluaren adierazten diren bide alternatiboak erabilita.
2. Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo du alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko da.
3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).
4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin atal honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, soilik jasoko dira ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

4.4.1. Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahaleginak egingo ditu ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.



2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

- a. Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.
- b. Jokabide hauek eman badira:
 - Ikastolako bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdin arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.
 - Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.
 - Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.
 - Aurretik gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik 120 eskola egun baino gehiago igaro ez badira.

4.4.2. Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzeari gertatu delako.

1. Adiskidetzeari gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzeari izango da, gertakari hauek ematen badira:

- a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.
- b) Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.
- c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.
- d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. Adiskidetzeari ez du bertan behera utziko prozedura 4.4.1.2.b. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

4.4.3. Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo



erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 4.4.1.2.b. artikuluan adierazitako artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

4.4.4. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea

4.4.1.2.b. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

4.4.5. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.

1. Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetze aldia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege- ordezkariak eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela aldeaz aurretik egiaztatuz gero.

2. Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

3. Jakinarazi egin behar zaie ikastolako Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

4.4.6. Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzetik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzarako konpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute. Bizikidetzarako konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.



2. Bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastolarekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3. Bizikidetzaren konpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.



5. JARRAIBIDEAK ETA PROZEDURAK

Neurri zuzentzaileak ezartzeko EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen ikasleen eskubide eta betebeharren 2012/2008 Dekretuaren IV Kapituluak arautzen duena jarraituko da.

5.1. Ikasleari integritatea errespetatu eta arreta berehala emateko jarraibideak.

Ikastolako irakasleek eta gainontzeko langileek berehala emango diote arreta arrisku egoeran dagoen ikasleari.

Horretarako, ikasleek **arduradun bat** izango dute **uneoro**, eta harengana jo ahal izango dute beharra duten guztietan:

- Klase orduetan irakaslea edo monitorea izango da arduradun hori.
- Atarian zaintza dagokienak izango dira. Arduradun horiek, irakasle zein zaintza arduradunek, behatuko dituzte espazio guztiak, ezkutuan geratzen direnak ere.

Arduradun horien egitekoa izango da arrisku egoerak ekiditeko esku-hartzea, ikasleari babesa ematea behar duenean edota lehen arreta eskaintzea zauri edo lesioren bat gertatzen denean (horretarako zehaztutako protokolo bereziari jarraiki). Beraien ardura izango da ere espazio konkretu horren erabilerarako araudia betearaztea. Ustekabez, arduradunek zaintza- lekura garaiz iristerik ez dutenean, ordezkoa bilatuko dute edo etapako arduradunari jakinaraziko diote, hark ordezkoa jar dezan.

Zaintza ikaslearen sarrera ordutik ikastolako azken eskolako saioa amaitu arte egingo da eta eskolaz kanpoko jarduera burutzen ari den bitartean. Ordu horietatik kanpo ikaslearen ardura bere gurasoena edo ordezkari legalarena izango da.

Zaintza ardura izan ala ez, langile guztiek zainduko dute ikasleen integritate eta duintasuna:

- Ikasleen segurtasun fisikoa, psikikoa eta morala eta duintasun pertsonala errespetatzen direla eta arrisku egoerarik ez dagoela.
- Ez duela inork, baimenik gabe, irudi edo ahots grabaketarik egiten.
- Ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiltzen dituztela (helbideak, telefonoak eta bestelako datu pertsonalak).
- Irudia edo izena komunikabideetan erabiliko ez direla legezko arduradunen baimenik gabe.



Ikastolako langileek **haurren babesik gabeko edo arriskuko egoerak** antzemanaz gero, ikastolako zuzendariari edo zuzendaritza taldeari helaraziko diote hark neurriak har ditzan. Zuzendariak arreta eza edo arriskua ikastolaren eskumen-eremuari ez dagokiola irizten badu eskumena duten Herri Administrazioei berri emango die.

Zaintza arduradunek **berdinen arteko tratu txarrak** antzemanaz gero edo haien inguruko berririk jasoz gero ikastolako zuzendariari edo zuzendaritza taldeari helaraziko diote, hark neurriak har ditzan. Zuzendaritzak lehenengo bilera batera deituko ditu tutorea edo tutoreak, orientatzailea, eta, beharrezkoa bada, baita inplikaturako ikasleen beste irakasle batzuk ere. Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte. Bestetik, ustezko biktimaren segurtasuna bermatuko dituzten behin behineko neurriak hartu ahal izango ditu zuzendariak lehen unetik.

Berdinen arteko tratu txartzat jotzen bada, zuzendariak Hezkuntza Sailak agindutako protokoloa martxan jarriko du eta gurasoei eta Hezkuntza Ikuskaritzari emango die horren berri.

Halaber, derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleen **absentismo-maila** jarraitzeko, hilaren amaieran, beranduenez, tutoreek etapako arduradunari emango diote asistentzia hutsegite guztien berri. Zuzendariak absentismo maila handia dela irizten badu, eta beti %20koa baino handiagoa denean, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeek jakinaraziko die, eskola- absentismoan inplikaturata dauden Administrazio eta erakunde guztien arteko lankidetzak lortzearen.

5.2. Azterketen berrikusketa egiteko prozedura

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo proba idatzia zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko. (LH- DBH-DBHO).

Derrigorrezko hezkuntza etapetako ikasleen gurasoek edo ordezkari legalek gainera, idatzizko proben kopiak etxera eramateko eskaera egin dezakete, behean zehaztutako prozedurari jarraituz.

- Eskaera idatziz egingo dute azterketa zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko eta ariketa edo proba bakoitzarentzat eskaera bat aurkeztu beharko da.



Irakasleak, egoki baderitzo, azterketaren kopia eman aurretik hitzordua emango dio guraso edo ordezkari legalari azterketa elkarrekin ikusi eta aztertzeko.

Derrigorrezko hezkuntzan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak ikasturte osoan gordeko dituzte irakasleek, aparteko deialdiko kalifikazioa erreklamatzeko epea amaitu eta beste hiru hilabetez, behin ikasturteko azken ebaluazioa burutu ondoren. Erreklamazioen bat egiten bada, aurkeztutako erreklamazioa ebazteko kontuan hartu beharko diren eta erreklamazioa egin duten ikasleei itzuli ez zaizkien zuzendutako ariketa eta lan guztiak, nahiz gainerako ikasleenak, gorde beharko dira ekintza judizial bat egitea posible den bitartean.

Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan ebaluatzeko erabili diren proba, lan eta ariketa guztiak ikasturte osoan gordeko dituzte irakasleek (ikasleei aurretik itzuli ez bazaizkie). Ohiko eta aparteko deialdietako proba edo azterketak urtebetez gordeko dira dagokien sailean.

5.3. Ebaluazioaren inguruko erreklamazio egiteko prozedura

5.3.1. Ikastetxeko bertako instantzien aurreko erreklamazioak:

1. Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren, ikasleek 48 orduko epea izango dute kalifikazio horien aurkako erreklamazioak aurkezteko inplikaturako irakasleari eta honek 48 orduko epean erantzungo du.

2. Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du:

a) Ebaluazio partzialak:

Erreklamazioa tutorearen aurrean egingo da, eta tutoreak ikasketa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Ikasketa buruak kontsulta egin diezairoke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

b) Azken ebaluazioa:

1) Ohiko eta aparteko deialdiei dagozkien kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari, kalifikazioa jaso eta 48 orduko epean.

2) Zuzendariak dagokion departamenduari aurkeztuko dizkio erreklamazioak eta departamenduak erabakia hartu eta txosten arrazoitua



eman beharko du. Aparteko deialdian lortutako kalifikazioaren aurkako erreklamazioen kasuan, txostenak zehaztu beharko du ea proba bat datorren programatutako edukiekin, ikasgaiaren helburuekin eta ezarritako eta jakitera emandako ebaluazio- irizpideekin.

3) Erreklamazioari oniritzia emanaz gero, ikasketa buruak kalifikazio berria aktetan eta bestelako agirietan idatzi beharko du araudizko prozedurari jarraikiz eta zuzendariaren oniritziarekin.

5.3.2. Ikastetxetik kanpoko instantzien aurreko erreklamazioak:

Ikaslea ez badago ados departamentuak hartutako erabakiarekin, alegazio-idatzia aurkez dezake Lurralde Ikuskatzailetzako Buruzagitzan, 48 orduko epean. Eta zuzendariak honako hauek bidaliko dizkio Ikuskatzailetzari: erreklamazioa eragin duten ariketak, programazioa azaltzen duen dokumentazioa, ikasleei eskuratutako ebaluazio-irizpideak eta ikastetxe barruan erreklamazioak izan duen prozesua.

5.4. Elkartzeko eskubidea baliatzeko prozedura:

5.4.1. Gelako batzarra

Gelako ikasleek talde osoaren intereseko gai bat aztertzeke gelako batzarra egin nahi dutenean tutoreari egingo diote ikas saio edo tutoretza saioa erabili ahal izateko eskaera. Tutoreak erabakiko du zein den batzar hori egiteko ordu eta leku aproposa.

5.4.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleen batzarra.

DBH 3. mailatik gorako ikasleek aukera izango dute ikasleen batzar orokorra edo ziklokoa egiteko, segidan adierazten diren baldintzetan.

- Batzarra egiteko proposamena ordezkarien batzordeak egin dezake, horretarako baimena zuzendariari eskatuz, edozein ikasle horri eskatu ostean.
- Batzarraren helburuetako bat ikasleak ikastolara ez bertaratzea, lanuzte bat egitea edo horretaz informatzea den kasuetan, honako baldintza hauek beteko dira:
 - Deialdia.
 - Eskaera egiten duten ikasleak zikloko %10a izango dira, gutxienez.
 - Zuzendariari idatziz adieraziko diote informatuko eta eztabaidatuko diren puntuen nondik norakoak.



- Greba edo lanuztea baino 48 ordu lehenago egingo dute eskaera (kasu berezietan, 24 ordu lehenago eskatzea nahikoa izango da).
- Antolaketa.
 - Batzarrak klase-orduetatik kanpo egingo dira.
 - Batzar hauek ikastolako gela batean (ikasgela, jangela, ikasleen gela...) egingo dira eta deitzaileak izango dira areto horien erabilera zuzenaz arduratuko direnak.
 - Deitzaileen ardura izango da informazioa zabaldu, debatea aurkeztu eta zuzentzea.
 - Batzar horietara joatea borondatezkoa da, bozketak isilpekoak izango dira eta bertan hartutako erabakiak ez dira lotesleak izango.
 - Batzar horietan irakasleren bat edo gurasoren bat arduradun gisa egotea hobetsiko da. Hala ez denean hitz egindakoaren eta erabakiaren berri idatziz jaso beharko du antolatzaileak eta zuzendaritari helarazi.

5.5. Kartelak eta iragarkiak. Idatzizko adierazpen askatasuna baliatzeko prozedura:

Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko. Kartelak eta iragarkiak jarri ahal izango dituzte DBH eta Batxilergoko pasilloetan horretarako duten panelean.

Panel horretan edozein gairi buruz informazioa eskaini eta iritziak eman ahal izango dira; beti ere pertsonak, taldeak, elkarteak, erakundeak eta une horretan panelean dauden beste kartelak erabat errespetatzen badira.

Kartelak eta iragarkiek data izango dute ipinita, eta iraunaldia galtzerakoan edota jarri zenetik bi aste pasatzerakoan, erretiratu ahal izango dira. Erretiratzeko ardura jarritako berberarena izango da.

Zuzendaritza taldeak baloratuko du aurreko baldintzak betetzen diren ala ez. Horren arabera ikasketa buruak edo zuzendariak kendu ahal izango dituzte.



5.6. Eskolara ez etortzeko eskubidea baliatzeko prozedura. Grebak.

DBH 3. mailatik gorako ikasleek eskubide hau baliatu dezakete, ondoko baldintzak betez:

Greba deialdia dagoela jakitean, berehala komunikatuko diete ikasleek ikastolako zuzendariari, ikasketa buruari edo batxilergoko arduradunari, hortik aurrera trabarik ez jartzen ahalegindu gaitzen denok. Ahal dela, irakasleek ez dituzte azterketak jarriko.

Greba egiteko asmoa duenak gurasoen idatzizko justifikazioa aurretik ekarriko du. Batxilergoko ikasleen kasuan gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidezko baimen orokorra aurkeztu dezakete, hala nahi badute.

Irakasleek ez dute zertan egun horretan irakatsitakoa errepikatuko, ezta aurreikusitako lanak edo kontrolak aldatuko ere.

Greba edo lanuzte deialdiek data eta iraupen jakin bat dituzte. Deialdi horiekin bat egitea erabakitzen duenak deialdian adierazten den denbora tartean egingo du, ez beste batean, denbora horretarako programaturik dauden jarduera guztiak galduz. Ez du norberak zein orдутan bai eta zein orдутan ez duen egingo erabakiko, bere interesen arabera.

5.7. Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea baliatzeko prozedura

Eskola-jardueran eta Ikastolaren antolamenduan aktiboki parte hartzeko DBHko lehen mailatik hasita, ikastalde bakoitzak ordezkaria eta horren ordezkoa aukeratuko ditu gehiengo absolutuz, bozketa zuzen eta isilpekoaren bidez.

Ordezkari guztien artean bi Batzorde osatuko dira:

- **DBHko Batzordea** eta
- **Batzilergoko Batzordea.**

Zereginak bi esparru nagusitan biltzen dira:

1. Estamentu guztien partaidetza sustatzea, bereziki ikasleena.
 - o Zurriola ikastolaren helburu nagusiak hedatzeko eta garatzeko ekimenak proposatzea, bultzatzea eta antolatzea.
 - o Ikasgeletan sortutako proposamenak jasotzea, biltzea, aztertzea eta bateratzea, dagokion organoari aurkezteko.
 - o Barne-araudia egokitzeko proposamenak jasotzea, aztertzea eta aurkezteko.



- Eskola-antolakuntzako zenbait eremutan jardun-proposamenak (ordutegiak, irteerak, eskolaz kanpoko ekintzak, etab.) egitea.

2. Elkarbizitza giroa zaintzea:

- Ikastolako harreman giroa hobetzeko ikasturtean egingo diren jarduerak planifikatzea eta jarraitzea.
- Harremanak hobetzeko jarduerak proposatzea: giroaren inguruko hausnarketak edo eztabaidak, kanpainak...
- Elkarbizitza arauak aztertzea.
- Egunerokoan sortzen diren gatazkak kudeatzeko eta bideratzeko moduak proposatzea: bitzartekaritzak...
- Berdinen arteko tratu txarrak detektatzea.

Partaideak:

1. DBHko Batzordea:

- Talde bakoitzaren ikasle ordezkari bana.
- Ikasmaila bakoitzeko guraso ordezkari bana.
- Zuzendaritza taldeko 3 ordezkari: etapako koordinatzailea, ikasketa burua eta zuzendaria.

2. Batxilergoko batzordea:

- Talde bakoitzaren ikasle ordezkari bana.
- Zuzendaritza taldeko 3 ordezkari: etapako koordinatzailea, ikasketa burua eta zuzendaria.

Funtzionamendua :

- Batzordeak ikasturtean bost aldiz bilduko dira, gutxienez.
- Lehen bilera azaroan egingo da eta azkenekoa ekainean, beranduenez.
- Erabakiak kontsentsuz hartuko dira, eta hori ezinezkoa denean bozketaz egingo da, bozka kopurua honela banatuz:
 - DBHko batzordea:
 - Ikasleek lau bozka (bat mailako).
 - Gurasoek lau bozka (bat mailako).
 - Zuzendaritzako kideek lau bozka.
 - Batxilergoko Batzordea:
 - Ikasleek sei bozka (bat taldeko).
 - Zuzendaritzako kideek sei bozka.



Kasu guztietan, eta berdinketa ematen denean, zuzendariak izango du kalitatezko bozka, eta haren faltan ikasketa buruak.

- Batzorde bakoitzak egoki deritzon azpibatzerdeak eratu edo sustatu ahal izango ditu zeregin zehatzetarako (Euskara Batzordea, Ingurumena zaintzeko batzordea...).

Erabakiak beste estamentuak edo ikas-etapak ukitzen dituenean Ordezkaritza Organo Gorenera eraman beharko dira.

5.8. Puntualtasun eza eta bertaratze hutsegiteak justifikatzeko prozedura.

Ikasleak ikastolako saio edo edozein irteeratara ezin badu etorri, edo lehenago atera behar badu, alde zuzenetik idatzizko justifikazioa ekarri beharko dio tutoreari, hutsegitearen arrazoiak adieraziz. Hala ezinezkoa denean, beranduenez, astebeteko epean egingo da (asistentzia hutsegitetzat hartuko da bestela).

Justifikazioak gurasoek edo legezko ordezkariak idatzizkoak izan behar dituzte. Adinez nagusiak diren ikasleei hiru aldiz onartuko zaizkie beraiek idatzitako justifikazioak, hortik aurrerako guztiak justifikatzeko mediku agiriak, agiri ofizialak edo beste ekarri beharko dituzte.

Ikasketa buruaren edo etapa arduradunaren esku egongo da emandako arrazoiak baliagarriak diren ala ez erabakitzea. Ez dira onartuko, adibidez, etxean ikasten geratzea edo behin eta berriro argudiatzea ondorenak, garaiz ez esnatzea, autobusa galtzea, etab.

Bertaratze hutsegiteak:

- Justifikatu gabeko klase galerak eskola orduz kanpo errekuiperatuko dira.

Batxilergoan ikasgai batean justifikatu gabeko %15 eta Lanbide Heziketan %20 hutsegite baino gehiago duten ikasleek ebaluazio jarraiturako eskubidea (ebaluazio-azterketa eta berreskurapena) galduko dute. Horren ondorioz ikasturte bukaerako azterketara (ohikora eta apartekora) aurkeztu beharko dira. (4.3.5 atala). Zenbaketa ebaluazioka izango da. Buletinean "Ez Ebaluatua" agertuko da eta arloko irakasleak erabakiko du ebaluazioan zehar egindako beste proben emaitzak ohiko deialdirako gordeko dituen ala ez.

- Azterketa edo kontrolen aurreko ikas saioetara ez badator, ikasleak kontrola/azterketa egiteko aukera galduko du. Batxilergoan berdin jokatuko da bezperako saioetan gertatzen denean.



Puntualtasun eza:

- Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitez hartuko da. Klase tartetean edo jolas garaiaren ondoren gertatzen bada eskola orduz kanpo errekuperatu beharko du galdutako denbora, lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn. Ikastolarako sarrera ordua gelan sartzeko ordutegia baino 10-15 minutu lehenagokoa izango da.
- Puntualtasun ezagatik ikas saioak galtzea behin eta berriro gertatzen denean, ikasketa buruak, etapa buruak eta tutoreak erabaki dezakete hortik aurrera saio horiek guztiak justifikatu gabeko asistentziaren %15ean sartzea (DBHOn).

5.9. Jokabideak zuzentzeko prozedurak:

Ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak betetzen direla bermatuko dute ikastolako langile guztiek.

- Jokabide desagokien kasuan neurri zuzentzailea ikasleen ardura duen edozein langilek har dezake.
- Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzendariak zuzenduko ditu edo, haren ordeztan, ikasketa buruak bigarren hezkuntzan eta etapako arduradunak lehen hezkuntzan.

Betebeharrak ez betetzeagatik edo ingurukoen eskubideak ez errespetatzeagatik segidan agertzen diren neurri zuzentzaile eta prozedurak aplikatuko dira. Hala eta guztiz ere ikasleak berak eta bere gurasoek edo ordezkari legalek proposatu ahal izango dituzte horien ordeztan izan daitezkeen beste neurri batzuk, eta zuzendariak edo etapako arduradunak erabakiko dute balekoak diren ala ez.



5.9.1. Jokabide desegokiak zuzentzeko prozedurak:

21/2008 DEKRETUA	JOKABIDE DESEGOKIAK(4.2.1)	HEZKUNTZA NEURRI ZUZENTZAILEAK	Prozedura (eta idatzizko erregistroak??)	NORK
30. a	a) <u>Justifikaziorik gabeko</u> puntualtasun eza.	Klase tartetan edo jolas-garaia ondoan gertatzen bada, eskola orduz kanpo erreperatu; lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn. Puntualtasun eza hiruhileko berean edozein ikas saiotan lau aldiz gertatzen denean, hortik aurrera saio horiek guztiak justifikatu gabeko asistentziaren %15ean sartuko dira DBHOn (%20 Lanb Hez-etan).	Atzerapenetan ikaslea gelan sartzen ez denean, zaintza gelara joango da. Gurasoek saio galeraren berri izango dute. <i>Justifikazio guztiak idatziz helaraziko zaizkio tutoreari hurrengo eskola egunean.</i>	Tutoreak.
30. b	b) <u>Justifikaziorik gabeko</u> bertaratze hutsegiteak.	Eskola orduz kanpo geratu lanak egiten.	Etxera deitu/ idatzizko ohartarazpena ^{1A} <i>Justifikazio guztiak idatziz ekarriko dira, beranduenez, astebeteko</i> epean edo hurrengo tutoretza saiorako.	Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak). Jangelan izan bada, jangelako zainzaileak (edo bere ordeztapa jangelako arduradunak).
		Ikasgai batean %15a gainditzen badu, ebaluazio eta berreskuratze azterketa egiteko aukera galdu DBHO (zenbaketa ebaluaziokoa).	Etxera deitu/Idatzizko ohartarazpena ^{2A} <u>ebaluazioa galtze</u> dagoela jakinarazteko. Idatzizko ohartarazpena ^{2B} eskubidea galdu duela adierazteko.	Etapa arduradunak.
30.b	c) Eskola eremutik irtetea horretarako baimenik ez dagoenean (eguerdia, jolas garaia...).	Ahozko ohartarazpena. Eskola orduz kanpo geratu zaintza gelan lanak egiten, denbora tarte berean (jolas-garaia edo eguerdia).	Arduradunak tutoreari edo etapa arduradunari jakinaraziko dio. Ikaslearen etxera deitu + Idatzizko ohartarazpena ^{1A}	Arduradunak (jangela, zaintza, irakasle...) Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak).
30. c	d) Gauzei eta lekuei narriadurak eragitea edo zikintzea zabarkeriagatik.	Ahozko ohartarazpena. Garbitze edo konpontze lanetan jarri (ahal denean). Errepikatuz gero, ikastolan geratu eskola orduz kanpo eskola lanak edo garbiketa lanak egiten.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹	Arduradunak. Arduradunak edota tutoreak. Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak).



30.c	e) Geletako edo eremuetako (frontoia, ataria, terraza, ikasleen gela...) arautegia ez betetzea.	Ahozko ohartarazpena. Errepikatuz gero, eremua erabiltzeko eskubidea galdu egun horretan. Gehiagotan errepikatuz gero, eremua erabiltzeko eskubidea galdu egun batzuetan (astebetez gehienez).	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹	Arduradunak. Arduradunak. Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak).
30.g	k) Ekipamendua baimenik gabe erabiltzea.	Ahozko ohartarazpena. Errepikatuz gero, ikastolan geratu lanak egiten.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹	Arduradunak. Tutoreak (edo etapa arduraduna).
30. k	f) Besteen gauzak erabiltzea haien borondatearen aurka <i>eta haien baimenik gabe.</i>	Ahozko ohartarazpena + Kaltetuari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹ .	Arduradunak. Arduradunak edo tutoreak.
30. d	g) Agindutakoa ez betetzea (mespretxu edo irainik gabe eta nahita/ <u>apropos egiten ez badu</u>).	Errepikatuz gero eskola orduz kanpo geratu lanak egiten.		Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak).
30.h	l) Langileei gezurra esatea (beste inori kalterik egiten ez dionean).			
30.e	h) Adeitasun ezako jarrerak, keinuak edo hitzak.			
30.e*	i) Besteen jarduna oztopatzea edota molestatzea.	Ahozko ohartarazpena. Lekuz aldatzea edo kaleratzea. Kasu honetan ikaslea zaintza gelara bidaliko da eta bertan agindutako lana beteko du. Kaltetuari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi. Eskola orduz kanpo geratu lanak egiten, lehengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Arduradunak kaleratzearen berri emango die gurasoei edo legezko ordezkariari, ahoz edo idatziz. Idatzizko ohartarazpena ¹	Arduradunak. Arduradunak edo tutoreak. Tutoreak (edo bere ordeztapa arduradunak).



30.f	j) Debekatutako gauzak ikastolara ekartzea.	Ahozko ohartarazpena + Ekarririkoa jasoko zaio eta egunaren bukaeran itzuliko. Errepikatuz gero, bi egunez jaso.	Arduradunak jasoko du eta tutoreari jakinaraziko dio. (Ikastolako segurtasun kutxan edo arduradunen bulegoetan jaso). Idatzizko ohartarazpena ¹ .	Arduradunak. Tutoreak (edo bere ordezkariak) etapa arduradunak).
30.f	j) Debekatutako gauzak erabiltzea (sakelakoa eta gailu elektronikoak Ikastola osoan).	<u>LH eta DBH eta DBHO</u> Erabiltzen ari ez dela hots egiten badu, ahazko ohartarazpena + jaso eta egunaren amaieran itzuli. Erabiltzen ari baldin bada: bi egunez jaso segurtasun kutxan.	Arduradunak ikasleari gailua itzalarazi, txartela kenarazi eta segurtasun-kutxan jaso. Tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹ .	Arduradunak. Arduradunak.
30.l	m) Azterketetan edo lanetan kopiatzea.	Azterketa/lana balio gabetzea.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Gurasoei edo legezko ordezkariari berri eman (LH-DBH).	Arduradunak. Tutoreak (edo bere ordezkariak) etapa arduradunak).

30.j	n) Ikastolako kideak ez direnei ikastolan sartzeko aukera erraztea <i>horretarako baimenik eskatu gabe.</i>	Ahozko ohartarazpena. Errepikatuz gero, arduradunak idatzizko ohartarazpena egitea edota eskola orduz kanpo geraraztea erabaki dezake.	Arduradunak tutoreari jakinaraziko dio. Idatzizko ohartarazpena ¹ .	Arduradunak. Tutoreak (edo bere ordezkariak) etapa arduradunak).
30.l	o) Gela edo pasilloetan egotea horretarako baimenik ez dagoenean.			
30.l	p) Betebeharrak ez betetzea (besteen eskubideak oztopatzen ez direnean).			

Bidaltzen diren idatzizko ohartarazpen guztien kopia bat etapako arduradunari emango dio tutoreak, hark jaso ditzan, ikasturtearen amaiera arte.



5.9.2. Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko prozedurak:

Dek.	BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK (4.2.2)	NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA	ARDURADUNA
31.e	a) Lokalei, materialei zein komunitateko gainerako kideen gauzei kalteak egitea bidegabeko erabileragatik (<i>erabilerara arauak ez betetzeagatik adib.</i>).	<ul style="list-style-type: none"> Ohartarazpen idatzia, + hausnarketa idatzia + eskola orduz kanpo ikastolan geratu eskola lanak edo lan hezigarriak egiten + kaltetuari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi. <p>Erantzuna desegokia balitz, erabakia betetzen ez bada, errepikatzen den egoera baldin bada edota kideen segurtasuna arriskuan dagoela baloratzen bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> gelara edo jangelara sartzeko eskubidea eten (zaintza gelan) gurasoekin elkartu arte eta haiek ikastolako arduradunek hartutako erabakiak beteko direla adierazi arte, beti ere hiru egun baino gehiago ez denean. 	Gertatutakoa tutoreari eta ikasketa buruari adierazi.	Arduradunak
	b) Besteen gauzak erabiltzea haien borondatearen aurka, esplizituki hala adierazi denean.		Tutoreak, Ik. Buruak edota zuzendariak	
31.a	c) Agindutakoa ez betetzea, diziplina eza agertzen edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak adierazita.		Informazioa jaso, hauei galdetuz: jokabide desegokia izan duenari, bere uneko arduradunari, kaltetuari, hainbat lekukori.	Arduradunak, tutoreak, Ika.Buruak edota zuzendariak.
31.b	e) Kideen aurkako mehatxuak edo irainak.			
31.k	g) Langileei gezurra esatea, beste kide batzuei kalte egiten bazaie.			
31.d	i) Buletinetan edo gurasoentzako dokumentuetan aldaketak egitea, ez ematea, erantzunak edo sinadurak aldatzea..			
31.c	h) Azterketa ereduak lapurtzea, argazkiak ateratzea, erantzunak kopiatzea, hedatzea, saltzea, erostea...			
31.f	d) OOGk hartutako erabakiak ez betetzea.			
31.h	l) Besteei haien eskubideak baliatzeko aukera galaraztea edo zerbait egitera behartzea, indarkeria erabili gabe.			
31.n	p) Betebeharrak ez betetzea, gainerako kideei eragozpenik sortzen badie eta hurrengo taulan ez badago (kalte larria eragiten duten jokabideak).			
31.l	m) Diskriminazioa dakarren edozein ekintza, kalte larria eragiten ez bada (adib: baztertzeta, parte hartzen ez uztea...)			
31.m	q) Aurreko taulako hutsegiteak hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean (hiru jokabide desegoki).			
31.j	f) Lesioak eragin ditzaketen objektuak zuzentzeko erabiltzea.	(Goiko berak).	(Goiko bera). + Objektua kendu eta jabearen gurasoei edo legezko ordezkariari eman.	(Goiko berak).



11.5	o) Eskolako eremuan edo jardueretan tabakoa, alkohola edo bestelako drogak edukitzea edo kontsumitzea.	(Goiko berak).	(Goiko bera). + Substantziak jaso eta gurasoei edo legezko ordezkariari eman.	(Goiko berak).
31.i	n) Ordena nahasten duten portaerak (gelak, pasilloak, autobusa, jangela, extraeskolarrak...) arriskua sortzen badute.	(Goiko berak). +Ikaslea lekuz aldatzea.	(Goiko bera).	(Goiko berak).
31.g	k) Besteen ohore, intimitate eta irudi propiorako eskubidea ez errespetatzea baimenik gabe grabazio-baliabideak erabiliz.	(Goiko berak). +Grabazio gailua jasoko zaio.	(Goiko bera). + Grabazio gailua segurtasun-kutxan gorde eta gurasoei edo legezko ordezkariari itzuli. +Grabatutakoa jaso edo ezabatsarazi egingo den baloratuko da.	(Goiko berak).
	j) Ikastolako eremuan sartzea eskola orduetatik kanpo, ikastola itxita dagoela, eta horretarako baimenik gabe.	Ahozko ohartarazpena. Errepikatuko balitz, goian proposatzen diren neurri zuzentzaileak.	Arduradunak ikasleak kalera lagunduko ditu. Ukatuz gero, izenak hartu eta Ikasketa Buruari horren berri emango dio. Errepikatuko balitz, prozedura hasi, goian adierazten den era berean.	(Goiko berak). Ikasketa Buruak edo zuzendariak.

5.9.3. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko prozedurak:

DEK	BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK (4.2.3)	NEURRI ZUZENTZAILEAK	PROZEDURA	ARDURADUNA
32.h	a) Instalazioetan edo ondasunetan zein komunitateko gainerako kideen gauzetan kalteak nahita eragitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Kaltetuari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi + • ohartarazpen idatzia + • hausnarketa idatzia + • eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea eskola orduz kanpo edo eragindako kalteak ordaintzea. • Hiru eskola-egunetik 20ra bitartean etxeratzea (eskola lanekin). Ikasleak ez du ebaluazio jarraitua izateko eskubiderik galduko.** 	<p>Gertatutakoa tutoreari eta ikasketa buruari adierazi.</p> <p>Kaltetua eta jokabide desagokia izan duen ikaslearen arteko bilera bideratu, egokituz jotzen denean.</p> <p>Prozedura hasi, gurasoei telefonoz berri eman ondoren, ondoko urratsak jarraitu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>prozedura zuzentzailearen hasiera</u> idatzia⁶. • Prozedura bertan behera geratuko ez balitz gurasoekin bilera (<u>entzunaldiaren akta</u> jaso⁷) . • <u>Neurri zuzentzaile</u> erabakiko du eta idatziz jakinarazi⁸. 	<p>Arduradunak.</p> <p>Ikasketa Buruak edo zuzendariak.</p>



32.m	b) Lapurtzea. k) Ikastolako eremuan indarrez edo kalteak sortuz sartzea edota egoitza barruan ikastola itxita dagoenean sartzea.	<ul style="list-style-type: none">• Kaltetuari/Ikastolako arduradunari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi +• ohartarazpen idatzia +• hausnarketa idatzia +• eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea eskola orduz kanpo edo eragindako kalteak ordaintzea. <ul style="list-style-type: none">• Hiru eskola-egunetik 20ra bitartean etxeratzea (eskola lanekin). Ikasleak ez du ebaluazio jarraitua izateko eskubiderik galduko.**	Gertatutakoa tutoreari eta ikasketa buruari adierazi. Kaltetua eta jokabide desegokia izan duen ikaslearen arteko bilera bideratu, egokitza jotzen denean. Prozedura hasi, gurasoei telefonoz berri eman ondoren, ondoko urratsak jarraitu: <ul style="list-style-type: none">• <u>prozedura zuzentzailearen hasiera</u> idatzia⁶..• Prozedura bertan behera geratuko ez balitz gurasoekin bilera (<u>entzunaldiaren akta jaso</u>⁷) . Neurri zuzentzaileg erabakiko du eta idatziz jakinarazi ⁸ .	Arduradunak. Ikasketa Buruak edo zuzendariak.
------	---	---	--	---



<p>32.1.a 32.1.a 32.1.d 32.1.g 32.1.k 32.1.j 32.1.l 32.1.b 32.1.c 32.1.i 32.1.e 32.1.f 32.1.n 32.1.ñ 32.1.m 32.k</p>	<p>c) Ikastolako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzeko diharduten irakasleen edo hezitzaileen aginduekiko obediencia-ukitze esplizitu nabarmenak, edota neurri zuzentzaileak ez betetzea.</p> <p>d) Kideen aurkako adierazpen oso laidogarriak eta iraingarriak.</p> <p>e) Kideen aurkako eraso fisiko edo psikologikoak.</p> <p>f) Liskar edo jokabide erasokorretan parte hartzea, lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.</p> <p>h) Beste edozeinen izena erabilita aritzea.</p> <p>i) Langileei gezurra esatea, beste kide batzuei kalte larria egiten bazaie.</p> <p>l) Besteen irudiak erabiltzea (konpartitzea eta publiko egitea) haren edota bere gurasoen baimenik gabe eta helburuz edo ondorioz pertsona horren duintasuna erasotzen bada.</p> <p>j) Ikastolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea, aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea.</p> <p>m) Diskriminazioa adierazten duten irainak egitea.</p> <p>n) Jazarpen sexistak</p> <p>o) Ordena nahasten duten portaerak, kideentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.</p> <p>p) Kideen segurtasunerako edota osasunerako kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea (tabakoa, alkohola edota drogak kontsumitzera bultzatzea).</p> <p>q) Aurreko taulako hutsegiteak taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean.</p> <p>†) Aurreko taulako edozein jokabide hiru aldiz egitea ikasturte berean.</p> <p>r) Betebeharrak ez betetzea gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada.</p> <p>s) Delitua den edozein ekintza.</p> <p>g) Berdinen arteko tratu txarretan parte hartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Kaltetuari/Ikastolako arduradunari jokabidearen zergatia azaldu, barkamena eskatu eta jokabidea ez errepikatzeko borondatea adierazi +• ohartarazpen idatzia +• hausnarketa idatzia +• eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea eskola orduz kanpo edo eragindako kalteak ordaintzea +• arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea. <ul style="list-style-type: none">• Hiru eskola-egunetik 20ra bitartean etxeratzea (eskola lanekin). Ikasleak ez du ebaluazio jarraitua izateko eskubiderik galduko.**	<p>Gertatutakoa tutoreari eta ikasketa buruari adierazi.</p> <p>Kaltetua eta jokabide desegokia izan duen ikaslearen arteko bilera bideratu, egokitzat jotzen denean.</p> <p>Informazioa jaso, hauei galdetuz: jokabide desegokia izan duenari, bere uneko arduradunari, kaltetuari, hainbat lekukori.</p> <p>Prozedura hasi, gurasoei telefonoz berri eman ondoren, ondoko urratsak jarraitu:</p> <ul style="list-style-type: none">• <u>Prozedura zuzentzailearen hasiera</u> idatzia⁶..• Prozedura bertan behera geratuko ez baldiz gurasoekin bilera (<u>entzunaldiaren akta</u> jaso⁷) .• <u>Neurri zuzentzaile</u> erabakiko du eta idatziz jakinarazi⁸. <p>Tratu txarren esparrukoa izan daitekeen jokabidea ikusten badu irakasle edo zaintzailearen batek, horren berri emango dio etapa arduradunari edo ikasketa buruari.</p> <p>Gertatutakoa aztertzeko, arduradun horiek bilera egin eta hartutako erabakiak <u>aktan</u>⁹ jasoko dituzte. Tratu txarrak izan daitezkeela susmatzen bada, berdinen arteko tratu txarren protokoloa abiatuko du zuzendariak eta horren berri emango dio Hezkuntza ikuskariari. A txostena¹⁰ beteko da eta, hala erabakitzen bada, B txostena¹¹.</p> <p>Zuzendariak behin-behineko larrialdi neurriak hartu ahal izango ditu eraso izan den pertsona babesteko.</p>	<p>Arduradunak.</p> <p>Ikasketa Buruak edo zuzendariak.</p>
--	---	---	--	---



Oharrak:

- **Ikaslea etxeratzeko neurria hartu ahal izango da beste eratako neurriak bitan gutxienez aplikatu ondoren, jokabideak zuzentzea lortu ez bada, ez bestela.
- Ikastetxetik kanpo gertatutako jokabideengatik neurri zuzentzaileak hartu ahal izango dira, beti ere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpoko jardunean egiten badira, jangela edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.
- Lehen Hezkuntzaz ari garenean "ikasketa Burua" jartzen duen lekuan "Etapia Arduraduna" irakurri behar da.



ERANSKINAK I

EGUNEROKO ARAUAK (HURRA)

1. IKASTOLAN EUSKAL GIROA BERMATU BEHAR DUGU: EUSKARAZ HITZ EGINGO DUGU

Ikastolan eta ikastolako jarduera guztietan euskaraz hitz egingo dugu, eta gure ingurukoek ere euskaraz hitz egin dezaten eskatuko dugu.

2. GURE ARTEKO HARREMANAK ZAINDUKO DITUGU

- Edozein leku zein jardueretan, gure harremanak zein jarrerak elkarrenganako errespetuan oinarrituko dira.
- Indarkeria jarrerak saihestuko ditugu, gure arteko arazoei irtenbidea bilatuko diegu modu *ez-gatazkatsuan*.
- Ingurukoak ezagutu eta baloratzen ahaleginduko gara eta begirunez tratatuko ditugu:
 - Isekak, irainak, baztertzeak, goitizenak, txantxa desegokiak ... ekidingo ditugu.
 - Modu baketsuan jokatu dugu, bultzakadak, mehatxuak, eraso fisikoak saihestuko ditugu.
 - Solaskideari aurpegira begiratuko diogu eta modu lasaian hitz egin.
 - Gauzak modu egokiz eskatuko ditugu eta eskerrak eman.
 - Lankidetzan arituko gara.
- Inguruko edozein kideren kontrako jarrerak ematen badira, horiek eman edota errepika ez daitezen ahaleginduko gara.
- Irakasle, monitore, hezitzaile eta arduradunak ere begirunez tratatuko ditugu. Horien kasuan kontuan hartu behar dugu haiengana zuzentzeko erabili beharreko erregistroa ez dela lagunen artekoa, formal baizik. Haien aginduak beteko ditugu eta azalpenak modu egokiz emango dizkiegu.

3. IKASTOLARA ETORRIKO GARA

- Guztiok dugu ikastolara etortzeko betebeharra, puntualtasunez eta arduradunek jarritako ordutegiak errespetatuz. Ikastolarako sarrera ordua gelan sartzeko ordutegia baino 10-15 minutu lehenagokoa izango da.
- Ikastolako saio edo edozein irteeratara ezin badugu etori edo lehenago atera behar dugunean, gurasoen justifikazioa aldeztu aurretik ekarriko diogu tutoreari edo arduradunari.
- Gurasoek justifikazio guztiak idatziz emango dituzte (e-postaz ere bidal daitezke), beranduenez aste beteko epean.
- Jangelara huts egiten badugu, gurasoen idatzizko justifikazioa ekarriko dugu eta jangelako arduradunari erakutsi.



4. PUNTUALITATEA ZAINDUKO DUGU

- Gelara garaiz iritsi behar dugu, saioa bere orduan hasteko.
- Berandu iritsiz gero, gelako atea joko dugu eta, irakasleak sartzen uzten ez badigu, zaintza gelara joan gara eta bertan lanean arituko gara hurrengo saioa hasi arte. LH 6. maila arteko ikasleok gelara sartu ahal izango gara, irakasleari baimena eskatu ondoren.
- Atzerapen horri dagokion **justifikazioa** tutoreari ekarriko diogu **hurrengo egunean**.
- Saioarean hasieran edota jarduera osagarriaren hasieran bost minutu pasa eta irakasle arduraduna azalduko ez balitz, gelako ikasle ordezkaria (edo beste ikasleren bat) irakasle gelara edo idazkaritzara joango da ikastolako arduradunen bati abisua ematera.

5. ATARIAREN ERABILERA EGOKIA EGINGO DUGU

- Ikasmilari dagokion sarrera orduaren aurretik edota irteera orduaren ondotik, atariangeldituz gero, bertako arauak errespetatuko ditugu nahiz eta zaintzaile arduradunik ez egon.
- Ikastolarako sarrera ordua gelan sartzeko ordutegia baino 10-15 minutu lehenagokoa izango da. Hau da, atea orduan zabalduko dira, bai goizez baita atari zein eguerdiko garaietan ere. Ikastolako bestelako zerbitzuren bateko erabiltzaileek (bazkaria, eskolaz kanpoko jarduerak,...) lehenago sartu ahal izango dira baldin eta baimendutako ikastolaz kanpoko jardueraren batean ari badira, beti ere, Atariko zaintzaileen jardunbidearen arabera.
- Ikastolako hesia itxita dagoenean, eskolako orduz kanpo, asteburuetan eta opor garaietan, ezin dugu ikastola eremura sartu, irakasle edo hezitzaile baten baimenarekin eta haren ardurapean gaudenean salbu.
- Ataria txukun mantenduko dugu.
- Jolaslekuan eta ikastolako barne eremuetan errespetuzko jolasak eta jarrerak gordeko ditugu, ikastola komunitateko beste partaideak molestatu gabe eta ondasunak zuzen erabiliz. Arriskua izan dezaketen jolasak saihestuko ditugu.
- Aterpean, egonleku eta pasabidea denez, ezin gara aritu baloiaz, bizikletaz, patinez edo ingurukoak molestatu ditzaketen jostailu zein gailuekin.



6. JOLAS GARAIETAN ETA EGUERDIETAN BAIMENDUTAKO LEKUA ERABILI ETA SARRERA- IRTEERA ARAUAK ERRESPESTATUKO DITUGU

- Ikastola eremutik atera ahal izateko gurasoen baimena ekarri behar dugu, atsedean tartetean ere. Baimena eskatuko diogu zaintza arduradunari hesitik kanpora atera ahal izateko.
 - Jangela erabiltzaileek eguerdian ezin izango dugu ikastolako eremutik irten.
 - Batxilergoko ikasleek ikastolatik atera ahal izango dute jolas garaietan horretarako gurasoen idatzizko baimena dutenean. Baimen hori ikasturte osorako izan daiteke.
 - Jangelan bazkaltzen duten DBH 3. eta 4. mailetako ikasleek ikastolatik atera ahal izango dute eguerdiko tartean, 14:00etan bazkaltzeko jangelan egon behar dutela onartuz, horretarako gurasoen idatzizko baimena baldin badute. Baimen hori ikasturte osorako orokorra izan daiteke eta egunero nahiz tarteka geratzen diren ikasleek bete behar dute. Irteteko baimena duten ikasleek bazkaltzera puntual iritsi behar dute.
 - Atsedendietan ezin dugu baimenik gabe ikasgelan edo eraikuntzaren barruan egon. Egoitza barruan baldin bagaude, irakasle edo hezitzaile baten baimena dugulako izango da, eta haren ardurapean egon beharko dugu.
 - Jolas-garaian eta eguerdian gelak itxiko dira eta ikasleok atarira irtengo gara. Atariko komunak erabiliko ditugu, eta ez egoitza barrukoak.
 - Ikasle gela erabil dezakegu, bertako arauak errespetatuz.
 - Sotoa eta komunak ezin ditugu jolasteko erabili.
 - Jolas-garaian atzealdeko eremua ezin dugu erabili.

7. KLASE TARTEETAN ETA PASILLOETAN EZ DUGU MOLESTATUKO

- Saioen artean ikasleok gela barruan egon behar dugu, pasillora atera gabe.
- Gela aldaketetan irakaslearen zain egon behar dugu.
- Pasilloak erabiltzean isilik eta lasai ibiliko gara, besteren lana galarazi edota oztopatu gabe.
- Pasillo eta eskaileretan besteei pasabidea eragozten ez diegula zainduko dugu.
- Ikasgelaz ikasgela zerbait jakinaraztera joateko, ikasleek baimena eskatuko diogu etapa arduradunari.



8. IKASGELA BARRUAN GIRO EGOKIA MANTENDUKO DUGU

- Irakaslearen aulkia, mahaia, arbela, ordenagailua, eskola-agenda eta bestelako materiala ez dugu erabiliko. Horrela izatekotan irakasle baten baimena behar dugu ikasleok.
- Sarrera orduetan ikasleok ondorengo bi saioetarako liburuak eta materiala prest izango ditugu.
- Lanerako materiala edukiko dugu.
- Komunera joateko irakasleari baimena eskatuko diogu.
- Gelan lanerako jarrera egokia mantenduko dugu denok: irakaslea arretaz entzun, isiltasuna bakarkako lanerako, elkarrizketetan txanda itxaron...
- Irakasleak gelatik kanporatzen bagaitu, zaintza gelan lanean egongo gara, hurrengo saioa hasi arte.
- Ikasgeletan ezin da ezer jan edo edan, ezta txiklea ere.
- Ikasgelan ezingo da sakelakoa bistan eduki, ezta piztuta ere, horretarako irakaslearen baimenik izan ezean.

9. JANGELAN GIRO EGOKIA MANTENDUKO DUGU

- Jangelara puntualtasunez joango gara.
- Esleitutako lekuan ondo eseriko gara eta, tokiz aldatzeko zaintzaileei eskatuko diegu baimena.
- Tonu eta ozentasun egokiaz hitz egingo dugu mahaikideekin, zaratak eta burrunbak ekiditeko.
- Gauzak/jakiak modu onez eskatuko ditugu.
- Ez dugu ura eta jakiekin jolastuko.
- Higienea eta segurtasuna zainduko ditugu, jateko erak zainduz eta mahai tresnak modu egokian erabiliz.



10. INGURUA TXUKUN MANTENDU ETA MATERIALA ZAINDUKO DUGU

- Ikastolako instalazioak eta materialak bertako kideen erabilpenerako dira eta kide garen guztion ardura da haien zaintza eta mantenua.
- Ikastola garbia eta ordenatua mantenduko dugu denok.
- Lanerako materiala zainduko dugu.
- Gure ardura izango da mahaia eta apala txukun mantentzea, gelako materiala zaintzea. Eguneko azken saioa amaitzean, gelako aulkia mahai gainean jasoko dugu.
- Zaborra zakarrontzira eta birziklatzeko gaiak dagokien ontzira botako ditugu.
- Mahai arteko pasilloak txukun mantenduko ditugu, motxilek ez dezatela trabarik egin.
- Arropa txukun zintzilikatuko dugu.

11. SAKELEKOA ETA JOKO ELEKTRONIKOAK IKASTOLAN EZ ERABILTZEN AHALEGINDUKO GARA

- Ezin dira baimenik gabe Ikastola osoan: mugikorrek/sakelekoak, musika tresnak...
- Ikastolara ekartzen den materiala ikaslearen ardurapean dago. Hala ere, gisa horretako tresnek duten balioa handia denez, komenigarria litzateke horiek ikastolara ez ekartzea.
- Ezin dira besteen irudiak (ezta audio grabaketak ere) baimenik gabe hartu, partekatu edota erabili.

12. ESKOLA AGENDA EGOKI ERABILIKO DUGU LAN TRESNA ONA DELAKO

- Eskola-agendan irakasleek agindutako lanak idatziko ditugu ikasleok.
- Eskola-agenda txukun mantenduko dugu.
- Irakasleek eta tutoreek gainbegiratu ahal izango dute. Kontuan hartu, ez dela agenda pertsonala guraso eta irakasleek erabiliko duten komunikazio tresna ere badela

13. IDAZKARITZAKOEN, ATARI ZAINZAILIEN, JANGELAKOEN ETA MONITORE GUZTIEN LANA ERRESPETATUKO DUGU

- Errespetuz eta doinu egokiz zuzenduko gara arduradunengana.
- Langile horien lana oztopa ditzaketan jarrerak saihestuko ditugu.
- Behar-beharrezkoa ez bada, ez dugu idazkaritzakoena lana moztuko. Ikastolan ezin dira fotokopia partikularrak egin.



14. BIZIKLETAK UZTEKO LEKUA EGOKI ERABILIKO DUGU

- Bizikletak ikastolaren atzealdean utziko ditugu, ez aterpean.
- Bizikletak eta motoak jarritako ordutegian utzi edo hartuko ditugu, aldameneko geletako saioakez oztopatzeko.
- Ordutegia:
- Goizero 7:45ean zabaldu eta 9:00etan itxiko da.
- Eguerdian astelehen, astearte eta ostegunetan 13:00etan ireki eta 13:15ean itxi. 14:40ean ireki eta 15:15ean itxi.
- Eguerdian asteazken eta ostiraletan 14:10ean ireki eta 14:20ean itxi, ondoren 14:45ean ireki eta 15:15ean itxi.
- Arratsaldero 16:45ean ireki eta 17:15ean itxi.

15. IRTEERAK ETA JARDUERA OSAGARRIETAN JARRERA EGOKIA GORDEKO DUGU

- Hezkuntza ekintzak direnez, ikasleok bertan parte hartzeko betebeharra daukagu, non eta horretarako arrazoi sendorik ez dugun. Horrelakoetan gurasoen idatzizko justifikazioa behar dugu.
- Irteera edo jarduera horietan ikasleok ikastolako araudia beteko dugu.
- Ikasleok irakasleek eta arduradunek esandakoa edo agindutakoa beteko dugu.
- Jarduera etxebizitza, egoitza... batean egiten bada, bertako araudia ere errespetatuko dugu.
- Joan etorrietan erabiltzen ditugun ibilgailuan doazen gidari eta beste bidaiariei eragozpenik ez sortzeko jarrera eta hots doinu egokia erabiltzen dugula zainduko dugu. Ibilgailua txukun utziko dugu eta ezingo da bertan jan edo edan.
- Ibilbidean doazen beste oinezkoei pasabidea eragozten ez diegula zainduko dugu, espaloietan, eta abarretan nahikoa tartea utziz.

16. OSASUNA ETA HIGIENEA ZAINDUKO DUGU DENON ARTEAN

- Ez ditugu ikastolako eremuan eta ikastolarekin egiten ditugun jardueretan alkohola, tabakoa edota beste drogak kontsumituko.
- Debekatuta dago ere horrelakoak ikastolan saltzea edo besteei helaraztea.
- Garbi eta egoki jantzita etorriko gara ikastolara.
- Edozein arrisku egoera ekidingo dugu eta halakorik antzematean arduradunei adieraziko diegu.
- Teknologia, plastika gela eta laborategietako araudiak beteko ditugu.
- Larrialdietan arduradunek emandako jarraibideak arduraz beteko ditugu.

